


4. Reseñas



EL PERIODISTA ante el mercado laboral

José Larrañaga Zubizarreta, Javier Díaz Noci, koord. –
Bilbo : Euskal Herriko Argitalpen Zerbitzua, 2003. –
202 or. ; 21 cm. – ISBN: 84-8373-561-X

Jose Larrañaga eta Javier Díaz Noci irakasleek koordinatutako liburu honetan, Euskal Herriko Unibertsitatean 2003.urteko maiatzean “Kazetaria lan merkatuaren aurrean” lemapean egindako ihardunaldietan esandakoak jasotzen dira. 13 gizon-emakumek hartu zuten orduan hitza, eta 13 dira orain argitaratzen diren artikulua (12 gazteleraz, 1 katalaneraz). Hitzaurrean esaten den moduan, lizentziatu berriek lanean hastean aurkitzen duten babesgabekeria egoera aztertzea zen helburua, eta horretarako arlo ezberdinetako profesionalak elkartu ziren. Lehen artikuluan, Eusko Jaurilaritzako Enplegu eta Heziketarako teknikaria den Juan Pablo de Juan Landaburuk Euskal Autonomia Erkidegoko kazetarien lan-egoera kaskarra marrazten du -are txarra emakumezkoen kasuan- eta arestian egindako beste zenbait ikerketaren emaitzak berresten ditu.

Unibertsitateko praktiken gaia ere jorratzen da liburuan. Lucía Martínez Odriozolak Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean indarrean dagoen praktika-programa azaltzen du, eta hurrengo orrialdeetan, STEE-EILASeko abokatuak unibertsital praktiken arazo juridikoak aztertzen ditu, eta Arabako Batzar Nagusietan aritutako UPV-EHUko bekadun biren aldeko sententziaren berri ematen du.

Hainbeste artikulua biltzen duen beste edozein lan askotan bezala, interes, maila eta era askotako idazkiak biltzen dira. Informazio ugari eman arren, oso erakargarriak egin ez zaizkigunak dira, esaterako, enpresa bat sortzeko prozesoa, egile-eskubideak, lan-kontratu moeta ezberdinak edota merkatal-elkarteen ezaugarriak aztergai dituztenak.

Interes handiagokoak dira, aitzitik, kazetal ihardueran murgildutako enpresen hausnarretak, muturreko bi ikuspuntu agertzen direlarik: batetik, Bizkaiko Kazetarien Elkartearen Presidentearen istorio sasimitiko eta zaharkituak, beti ere kazetarien elkargoa sortzea aldarrikatzearen; bestetik, ELAko Gurutz Gorraiz-en eskutik, irrati-telebistetan hedatzen ari den pribatizazioaren irudi gordina. Biak uztartuz, EFE Agentziako Jose Alonsok “ogibiderik onena... garaiz utzita” izenburua jarri dio bere artikuluari. Lanbide honek duen gazi-geza.

Ikasle lizentziatu berriarentzat, zein fakultateetan ibiltzen diren ikasle-irakasleentzat, eta orohar gaur egungo kazetaritzaren egoera ezagutu nahi duen ororentzat interesgarria den liburu.

Rosa M. Martín Sabarís



ARRIAGA LANDETA, Mikel; PÉREZ SOENGAS, José L.

La prensa diaria en Euskal Herria

Bilbao : Servicio Editorial. Universidad del País Vasco, 2000. – 153 p. : il., tab. ; 22 cm. – (Comunicación ; 9). – ISBN: 84-8373-281-5

El libro recoge los resultados de un trabajo de investigación cuyo objetivo ha sido analizar la evolución de la prensa diaria en la CAV y Navarra desde el inicio de la Transición (1976) hasta 1998. Los autores enmarcan el interés del trabajo en la importancia de los medios de comunicación en el proceso de construcción de la realidad política, así como en la configuración de espacios culturales, simbólicos y comunicativos, que en el caso que nos ocupa se forjan en un panorama de cambios políticos y sociales que incluyen tanto la articulación del estado de las autonomías como el proyecto de construcción europea.

Los investigadores han constatado las lagunas existentes en los datos de difusión de los diversos medios a lo largo de todos estos años, por lo que se han visto obligados a llevar a cabo una laboriosa búsqueda no exenta de dificultades, por ejemplo en lo que se refiere a los datos sobre audiencias. Esta labor de búsqueda y elaboración ha quedado reflejada en la gran cantidad de tablas que han publicado en los anexos del trabajo, los cuales sin duda facilitarán la tarea de futuros investigadores.

A la hora de analizar los datos se hace una distinción básica entre la “prensa propia” –la editada en la CAV y Navarra– y la “prensa de penetración”, que se circunscribe a la publicada en Madrid, pues los medios procedentes de otros lugares tienen una incidencia escasa. Tanto con respecto a la prensa propia como a la de penetración se relata el origen, difusión y características generales de los diarios actualmente en funcionamiento así como de aquellos que han desaparecido a lo largo de estos años –incluyendo algunos proyectos que vieron la luz por un período muy breve. A continuación destacaremos algunas de las nociones generales que se desprenden del estudio.

En 1976 tanto en Euskadi como en Navarra la única prensa que había era de vocación vertebradora de la nación española, y estaba asentada en los cuatro territorios con mercados regionales muy definidos. Ya entonces los medios relacionados con lo que más tarde se iba a denominar Grupo Correo eran los que más peso tenían en la estructura comunicativa de los cuatro territorios, a través de *El Correo Español* – *El Pueblo Vasco*, *El Diario Vasco* y *Diario de Navarra*. En los años siguientes haría su aparición una prensa autóctona de orientación nacionalista vasca que intentaría vertebrar una estructura comunicativa de la nación vasca: *Deia*, *Egin-Gara* y *Euskaldunon Egunkaria*. Sin embargo, los autores destacan el hecho de que “no existe una prensa

de Euskal Herria en cuanto tal, pues el dominio de la prensa regional o provincial es indiscutible”, subrayando las dificultades que existen para configurar en la prensa un espacio comunicativo que englobe al conjunto de las regiones de Euskal Herria.

En ese sentido, la prensa autóctona de orientación nacionalista española, líder de audiencia y asentada en todos los territorios, se ha servido eficazmente de una estrategia informativa provincialista y localista. Por el contrario, la prensa de penetración de información general sólo ha logrado ampliar modestamente su audiencia, a pesar de sus esfuerzos por ganar terrenos informativos. Tanto la prensa de la CAV como la de Navarra tienen bien acotados sus respectivos mercados. Las dos comunidades constituyen un espacio informativo poco asequible a la penetración –hasta el punto de ser las dos CCAA del estado que reciben menos prensa de penetración– aunque se acoge bien la prensa deportiva (*Marca*) y la económica (*Expansión*).

Finalmente, y en relación también con los contenidos del libro, señalaremos que los autores, junto con A. Dávila, han publicado otro artículo titulado *Difusión de los diarios de Euskalherria desde la transición política. De lo ordinal a lo cardinal*, en el nº 10 de la revista *Zer*, de la Facultad de CC.SS. y de la Comunicación de la UPV, en el que tras sintetizar algunas de las conclusiones de este trabajo, analizan aspectos concernientes a los contenidos de la prensa en relación a cuestiones como la vertebración territorial y la interrelación cultural y política entre la CAV y Navarra.

Santi Urrutia



ODISEA 21. La evolución del sector audiovisual. Modos de producción cambiantes y nuevas tecnologías

Nereida López Vidales, Carmen Peñafiel Saiz, coords. y eds. – Madrid: Editorial Universidad Francisco de Vitoria, 2003. – 386 p. : tab. ; 24 cm. – ISBN: 84-89552-81-9

Digitalizazioaren alderdi teknologikoak *versus* komunikazioan izan ditzakeen ondorioak. Ikuspegi akademikoa *versus* dibulgatiboa. Azken orduko berrikuntzen lilura *versus* ikuspegi erlatibizatzailea eta kritikoa. Testu-liburu itxia *versus* lehen hurbilpen izateko jaioa. Medioetako profesionalak *versus* ikertzaileak. Egungoa aztertu *versus* etor daitekeenari buruz hausnartu.

Ikuspegi dikotomikoa eta, askotan, baztertzaillea nagusitzen da gaurkotasan handiko hainbat gaien inguruan. Eta aldiz, “Odisea 21. La evolución del sector audiovisual” izeneko liburuan, lehenago aipatu ditugun bikote horietatik, guztietatik, zerbait badu. Hori da, puzzle edo mosaiko abiapuntua duten argitalpenen indargune, eta,aldi berean, ahulezia, esango nuke nik.

Artikulu bilduma interesgarria da eta bertan koordinatzaile eta editore lanetan aritu diren López eta Peñafiel irakasleek teknologia berrien eragin produktibo, komunikatibo eta profesionala jorratzen dituzte, besteak beste.

Esparru tematikoa definitzerakoan “irratia”, “telebista” eta “zinea” ageri dira gai nagusi gisa, egileek beraiek jakitun izanik etiketa horiek konbergentzia digitalaren garaiari zaila direla mantentzen, eta medioen arteko mugak desagertu eta halako mediamorfosia gertatzen ari delako. Baina hain da berria digitalizazioaren aplikazio teknologikoa eta soziala zeren zaila baitzaigu, oraindik ere, “irratia”, “telebista” ala “zinea” bezalako etiketa zaharkituak baztertzea. Nomenklator alternatiborik ez, momentuz.

Aldatuz doan medioen munduak berrikuntza terminologikoa ere ekarriko du bera-ekin, baina zalantzarik ez dago, esaldi zaharrak diotenaren kontrara, izenik gabe ere gauzak izan badirela.

Ez da, esku artean dugun liburua, kolpean irakurtzen den horietarikoa, ezta beharrik ere. Baina, interesen arabera, eremu zehatzetako kezak erantzuteko eta, bakoitzak hurbilen dituen gaien ingurukoetan sakontzeko aukerak eman bai. Gainera, gaiaren inguruko hamaika ikuspegi (28 artikulu eta beste horrenbeste sinadura ageri dira liburuan) duenez, litekeena da gaur baztertu dena biharko jakinguria asetzeko balio izatea. Edozelan ere, irratia (7 artikulu), telebista (11) edo zinea (2) idatzi-bilduma irakurgarria osatzeko balio izan duen bezala, ikusten da guztiak ez direla modu berean, sakontasun parekoaz ezta emaitza konparagarrietara heldu. Baina, hori, jangaien iraingitze dataz bezala, beti gertatzen da, eta, modu berean, sukaldean ditugun produktu guztiak ez dute ez kalitate bera ezta ere irauteko helburu berdintsua. Hauer-itariko artikulu batzuk egungoa aztertu eta orain artekoaren errebasu interesgarria egi-ten dute eta, besteak aldiz, momentu honetan somatu besterik ez diren joerak plazaratzen dituzte. Bietatik bat bera ere ez dago arriskutik libre, batek zahartzaroa eta besteak ez asmatzea edota gaur garrantzia duten hainbat faktorek biharko egunean, apurtutako jostailuak bezala, zakarrontzian amaitzekoa. “Estado de la cuestión” eremuan aritzen direnak zailak dira sintesi lana ekarri beharra dutelako beraien baitan, baina, bestalde, ez dute zergatik apustu-maila bera erakutsi beharrik. Etorkizunean begiak dituzten artikulugileen kasuan, jaiotzen ari denaren bilakaera nolakoa izango den inork ez jakitean dago erronka eta arriskua. Bietatik zerbait dago “Odisea 21. La evolución del sector audiovisual” delako liburuan.

Errotazio maila altua eskatzen duen liburua da, ez dut esan nahi bestela apalategietan ahaztuta eta balioa galduko duelako, baizik eta bertan jorratzen diren gaiak eta ikuspegiak denbora laburrean oso jende eta interes desberdinak asetzeko balio deza-keelako. Hori opa diot, biblioteca eta ikasketa-zentruetan erreferentzia hurbila eta erabil-ia izatea. Orain-oraingo, izan dadila lehen hurbilketa orokorra edo hainbat gai zehatzetarako lehen irakurgaia izatea beste liburuetara jo aurretik.

Gainera, ez da ikuspegi akademikoa eta zientifikoa guztiaren gainetik gailentzen, izan ere, medioei buruz hausnartzen dutenaz gain beraietan lanean aritzen direnak aurkitu daitezke liburuaren orrialdeetan. Bizitasun handia ematen dio horrek.

Edorta Arana